

GENERO INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA ARRETARAKO ZERBITZUAK: %100 PUBLIKOAK

2025EKO AZAROAK 25 EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA

UGT Zerbitzu Publikoetan egunero lan egiten dugu genero-indarkeria prebenitzeko, babesteko, jarduteko eta desagerrarazten saiatzeko, bai lantokietan, bai gizartean. Horregatik, egun honetarako, honakoa proposatzen dugu:

1.- GENERO-INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ETA ARRETARAKO ZERBITZUAK: %100ean publikoak. Genero-indarkeria desagerrarazteko zerbitzu publikoak zuzenean eskaini behar ditu administrazioak, gaitz horren aurrean esku hartzeko eta jarduteko erantzun eraginkorrenak emateko. Hala ere, zerbitzu horiek kanpora ateratzean, ez da onartu behar lan-baldintzak prekarizatzea, eta baldintza duinak, egokiak eta kualifikatuak bermatu behar dira.

2.- INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK ERDIGUNEAN JARRIKO DITUEN ESKU-HARTZE EREDU BATEN ALDE. Beharrezkoa da emakumeak beren premiekin erdigunean jarriko dituen eredu bat sustatzea, beren autonomia maila guztietan bultzatzeko: maila pertsonalean, ekonomikoan eta sozialean. Esku-hartze asistentzialaren eredia gaituz, diseinatutako neurriak eta genero-indarkeriarekin amaitzeko baliabideak hobetuz.

3.- GENERO INDARKERIA ARTATZEN DUTEN ZERBITZU PUBLIKOETAN IKUSPEGI INTEGRALA, KOORDINATUA ETA GARDENA IZATEA. Garrantzitsua da jarduketa eta koordinazio-sistema integral bat garatzea, zerbitzu publikoen bidez gauzatuko den neurrien gardentasun, jarraipen eta ebaluazio-mekanismoekin. Era berean, genero-indarkeriari aurre egiteko oinarrizko gobernu-politika izaten jarraituko duela ziurtatzea.

4.- SENTSIBILIZAZIO ETA INFORMAZIO-KANPAINAK EGITEA LANTOKIETAN, BEREZIKI GENERO-INDARKERIAREN ARRETARI LOTUTAKO ZERBITZU PUBLIKOETAN. Zer diren, zer egin behar duten, nola prebenitu behar duten, aurreiritziak eta estereotipoak saihestu behar dituzten, eta zer baliabide dauden jakiteko. Aldi berean, kanpaina horien bidez, genero-indarkeriaren aurrean tolerantziarik gabeko jarrera aktiboa hartzea gonbida daiteke.

5.- GENERO-INDARKERIA PREBENITZEKO, LAGUNTZEKO ETA HORRI AURRE EGITEKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA. Nazioarteko eta estatuko hainbat erakundek adierazi dutenez, langileek gehienetan ez dute genero-indarkeriaren sintomarik edo zantzurik antzematen. Ondorioz, funtsezkoa da prestakuntza egokia ematea, egoera horiek bizi dituztenei lantokietatik antzeman, lagundu eta bultzatu ahal izateko.

6.- GENERO-INDARKERIAREN ARRETARAKO BALIABIDEAK AREAGOTZEA EDO INDARTZEA, biktimei legedi guztietan aitortutako eskubideak baliatu ahal izan daitezen, eta biktimei eman beharreko arreta behar bezain integrala izatea ahalbidetzen duten neurri guztiak hartu ahal izan daitezen.

7.- EKITATEAN ETA GIZA ESKUBIDEETAN OINARRITUTAKO LAN-KULTURA BULTZATZEA, LANTOKIAK LEKU SEGURUAK ETA TRATU ONEKOAK DIRELA BERMATZEKO. Genero-indarkeria, sexu-indarkeria eta sexuagatiko indarkeria oro prebenitzeko eta horiei aurre egiteko lan-ingurune segurua sortzea, indarkeriarik eta diskriminaziorik gabeko bizitzak bermatzeko politikak eta praktikak ezartzeko. Ekintza horiek agerikoak izan behar dute, eta goi-zuzendaritzaren babesia izan behar dute beti, baita erakunde osoan modu koherentean aplikatu ere.

8.- BIKTIMENTZAKO LAN-BABESA BERMATZEA AHALBIDETZEN DUTEN ZERBITZU PUBLIKOETAKO ADMINISTRAZIOETAN ETA ENPRESETAN GENERO-INDARKERIAREN ARRETARAKO PROTOKOLOAK NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BIDEZ SARTZEA. Sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzioa eta laguntza izan behar ditugu lantokian. Erantzun espezializatua ahalbidetzen duten babes integraleko neurri egoki guztiak barne.